


Lezoko zine agenda

MARTXOA

MARZO

2006



Gezala


AUDITORIUMA

800
zine ma

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**

OSTEGUNA • jueves — **EMAKUMEAK PROTAGONISTA**



VENUS, SALÓN DE BELLEZA

Venus auzo bateko apaindegi bat da. Bertan hiru estetizista eta nagusia aritzen dira. Bezeroei tratu ezin hobe ematen diete eta bertan sortu den giroa apartekoa da. Egunerokotasunean gertatu ohi diren harremanak nola isladatzen dituzten alde batetik, eta pelikularen protagonista 4 emakume izateak, nahikoa berezitasun badira pelikularekiko interesa pizteko. Arrazoi gehiago behar dituzula? 2000. urteko Cesarren edizioan 4 sari irabazi zituen. Horieta, bat Audrey Tautou (*Amélie*) gazte eta interesgarriak.


1999, Frantzia 105 min. Tonie Marshall.
Audrey Tautou, Nathalie Baye, Bulle Ogier, Mathilde Seigner.



FLORES DE OTRO MUNDO

Bollainek zinegintzan egindako ibilbidea ez da nolanahikoa. Gizarte gaiak jorratzen zinemagile erreferentziala bilakatu da espainiar zineman. Gai konplexuen trataera sinplifikazio errazetan erori gabe egiten dakiena. Horren adibide da *Te doy mis ojos* filme ospetsua. Halere, hura bezain konprometituak diren pelikulak egin izan ditu. Bat *Flores de otro mundo* hau dugu. Berriro ere emakumeen gaia ukituko du, baina oraingoan gauzak zailago egiteko osagai berria erantsiko du: batzuk emakume izateaz gain, etorkinak izatea.


1999, Espainia 108 min. Iciar Bollain.
Lissete Mejia, Marilin Torres, Elena Irureta, Luis Tosar, José Sancho, Chete Lera.



EL PIANO

Ada mutua da. Eskozia utzi eta Zelanda Berrira joan beharko du alargundu eta gero. Bere alaba eta pianoa soinean dituela joango da adostutako ezkontza batean han bizi den gizon batengana. Senargaia denak ez du pianoa etxera eraman bahiko. Auzokoa eta bertakoa den batek jasoko du pianoa eta Adak berriro jotzekotan berarekin tratua egin beharko du. Hiru emakume eta hiru Oscar 1994ean: zuzedari, aktorea eta 2. mailako aktorea hoberenen Oscarak jaso zituzten. Errepikaezina!

1993, Australia-Frantzia 120 min. Jane Campion.
Jane Campion, Harvey Keitel, Anna Paquin, Sam Neill.



LA JOVEN DE LA PERLA

Johannes Vermeer margolariaren etxean lan egiten du neskame moduan Griet neskatoak. Vermeerrek modelo bezala erabiliko du bere koadroetan eta bere obra ezezagunenetakoa den pelikularen izenburu bereko koadroko neska ere bera izango da. Bere garaian misterio bat izan omen zen gai hori eta hori da argitu nahi duena pelikulak. Oso modan dagoen Scarlett Johanssonek bere profesionaltasun maila mantentzen du pelikula honetan.

2003, EB-Luxenburgo 95 min. Peter Webber.
Scarlett Johansson, Colin Firth, Judy Parfitt, Tom Wilkinson.



LAS HORAS

Antzezle taldea paregabea, berezik hiru emakumeek osatzen dutena. Virginia Woolfen oinarritutako istorioa kontatzen da pelikulan. Garai ezberdinetako hiru emakumek (bat Woolf bera) *Mrs Dalloway* eleberrian inguruan dituzten bizipenak hartuko ditu pelikulak oinarritzat. Kidmanek 2003an Oscarra irabazi zuen emakumezko antzezle hoberena izateagatik eta urte berean hiru aktoreak Berlingo zilarrezko hartza jaso zuten lan berarengatik. Aparteko pelikula!

2002, EEBB 114 min. Stephen Daldry.
Nicole Kidman, Julianne Moore, Meryl Streep, Ed Harris.

LARUNBATA • sábado



GLUP

Etxean egindako marrazki bizidun liluragarriak. Euskal Herriko marrazki bizidunak ekoizten dituzten bi estudio nagusienak elkartu ziren proiektu honetan: Irusoin eta Dibulitoon. Beraz, marrazkien kalitatea ziurtatua dirudi. Bestalde, istorioak ere mezua badu: birziklatzearen garrantzia eta egungo kontsumo gizarteari egindako kritika. Aliziaren irrati kuttuna zabortegira botako dute gurasoek. Alizia bere bila joango da eta zabortegian espero ez zituen lagun asko egingo ditu.


2004, EH 70 min. Aitor Arregi.
Marrazki bizidunak



BOSTAK 7

Bosten hiru abentura berri ikusteko aukera izango da gaurkoan: *Bostak arriskuan*, *Bostak eremu misteriosuan* eta *Bostak ibilaldian elkarrekin*. Lehenengoan Galeseko landetxe batera doaz egun batzuk igarotzera. Ondoko baserrian gauza arraroak pasatzen dira gauetan. Bigarrenengoan arrisku handiagoak ezagutuko dituzte: eremu magikoan lanbroa dagoen bakoitzean jendea desagertzen da. Azken abenturan preso batek ihes egingo du eta gure lagunekin topatuko da.

1999, EB 100 min. Hainbat.
J.Rooper, M.Williamson, Paul Child, Laura Petela, C.Good.




HIRUKIAK:

(Juan beldurgabea & Bagdadeko lapurra)

Cromosoma ekoiztetxeak nobela edo ipuin ezagunetan oinarritutako bilduman azaltzen denetako bat da eskaintza berri hau. Gaurkoan hiru ahizpatxoak Bagdaderaino joango dira, alde batetik. Bertan lapur bati aurre egin beharko diote. Bestetik, beldurrik ez duen Juan gaztetxoari lagundu beharko diote. Ez ahaztu hain sinpatikoak eta ezagunak egiten ari zaizkigun ahizpatxo hauek oso marrazki atsegin eta erakargarria dutela.


2003, Catalunya 60 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak.



UNIBERTSOLARIA. MUNDUAREN HERTZAREN BILA

Unibertsolari borobilak unibertsotan bizi dira bere izenak dioen bezala. Juanjo Elordiren zuzendaritzapean, Unai Iturriaga bertsolariaren gidoiarekin, marrazki bizidun hauek arrakasta handia izan dute Euskal Herriko zinematan. Satur, Karratu, Maripipi sorgina Boroville-n bizi dira eta Plutonentzako kanikaz osatutako opari bat prestatzen ari dira. Saturrek irrist egin eta gero, hautsi egingo du nahigabea...


2005, EH 79 min. Hainbat.
Juanjo Elordi.



WILBUR SE QUIERE SUICIDAR

Italiano para principiantes pelikula ikusi dutenak Lone Scherfig ongi gogoratuko dute. Han bezala hemengo honetan ere, benetako drama gogor eta latz baten barruan komedia ukituak modu oso egokian sartzen aparteko gaitasuna duela erakusten digu berriro. Arestian aipatu-tako pelikula *Dogma 95* mugimenduaren barnean sartzen bazen, oraingo honetan bide *ortodoxoagoa* jarraitu du eta han bezain email-za onekin. Istorioa sugetzarretakoen antzekoa baina ona da!


2002, Danimarka-EB 106 min. Lone Scherfig.
Jamie Sives, Adrian Rawlins, Shirley Henderson, Julia Davis.



MONSTER

Pelikula honi buruz hitz egiten hasteko garaian Charlize Theron izena aipatuz egin behar da. Onerako edo txarrerako bera da pelikularen arima, gorputza eta burutzen zaizuen edozer gauza. 2004ko Berlineko eta Oscar sarietako aktorea hoberenaren sariak jaso zituen. Aileen Wuornos emagaldutako bizimoduaren oinarritzen da istorioa. 7 gizona hil zituen eta gaur egun Floridako espetxean heriotzaren zain dago.


2003, EEBB 110 min. Patty Jenkins.
Charlize Theron, Christina Ricci, Bruce Dern, Lee Tergesen.



HÉCTOR

Hectorrek ama galdu du eta bere izeba arduratuko da bera hezitzeaz. Lorategia zuen etxe handi batetik Madrilgo pisu batera joango beharko du bizitzera. Hectorrek bere egoera berria ulertu beharko du eta horretara egin beharko du bere burua. Dena bideratzen ari direla dirudienean bere aita azalduko da eta gaztea bereganatzen saiatuko da. Hectorren hautu gogorra eta ziurrenik bere bizitzako garrantzitsuen egin beharko du. Gracia Querejeta hain gustuko dituen gaiak ikutzen jarraitzen du.

2004, Espainia 107 min. Gracia Querejeta.
Adriana Ozores, Nilo Mur, Unax Ugalde, Joaquín Climent.



LA SUERTE DORMIDA

Gertaera erreal batean oinarritzen da filmea. Gizon bat sepiolita meategi batean erori eta hil egiten da. Familiak enpresa epaile aurrera eramango du. Adriana Ozores egingo ditu defentsa lanak. González-Sinde bera gidolaria izaki, pelikula bat zuzentzea erabaki zuen eta bere lehen pelikula izan zen honekin Goya bat irabazi zuen 2004ean zuzendari berri hoberena izateagatik. Azpimarratzekoa Ozoresen lana. Espainian egiten den zinean erreferentzia bat bilakatzen ari da isil-isilik.

2003, Espainia 105 min. Ángeles González-Sinde.
Adriana Ozores, José Soriano, Félix Gómez, Francesc Orella.

AUDITORIUMA

Sezala

MARTXOA - marzo

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 2	22:00	VENUS, SALÓN DE BELLEZA
LARUNBATA 4	16:30	GLUP
LARUNBATA 4	22:00	WILBUR SE QUIERE SUICIDAR
OSTEGUNA 9	22:00	FLORES DE OTRO MUNDO
LARUNBATA 11	16:30	BOSTAK 7
LARUNBATA 11	22:00	MONSTER
OSTEGUNA 16	22:00	EL PIANO
LARUNBATA 18	16:30	HIRUKIAK: (Juan beldur-gabea & Bagdadeko lapurra)
LARUNBATA 18	22:00	HÉCTOR
OSTEGUNA 23	22:00	LA JOVEN DE LA PERLA
LARUNBATA 25	16:30	UNIBERTSOLARIA. MUNDUAREN HERTZAREN BILA
LARUNBATA 25	22:00	LA SUERTE DORMIDA
OSTEGUNA 30	22:00	LAS HORAS

JAZZ KONTZERTUA


▶ **David Orduña**

Martxoak 3 ostirala 22:30etan

GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
5,00 €

Gezala Jazz Klubaren emanaldiekin aurrera jarraitzeko, honakoan David Orduña Quartet izango da gure artean. David Orduñak jazzaren soinu klasikoenak jorratuko ditu eta hainbat jazz-aldietan, hainbat musikariek kolaborazioetan parte hartu duen tronpeta jole nafarra honakoan bere ohiko laukotearekin etorriko da (tronpeta, pianoa, kontrabaxua eta bateria).



KONTZERTUA

▶ **Alos Quartet**

Martxoak 24 ostirala 19:30etan

GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
0,00 €**Lesoinu 2006 Martxoaren 23tik apirilaren 2ra**

Lesoinu 2006. Aurten XX. edizioa egingo du musika aste pedagogiko entzutetsu honek. Lezoko haur eta gazte musikariek hemen burutzen dute musika ekimen ugari. Bertakoak eta kanpokoak uztartuko dute egun hauetan beren musika zaletasuna. Emanaldiak aparteko programan iragarriko dira eta **Gezala Auditoriumen** izango dira. Aurtengoan bere programazioaren barruan Alos Quartet

Alos Quartet

Alos Quartet 1999an sortu zen, Et Incarnatus ganbara orkestraren baitan. Musika klasiko nahiz modernoan ibilbide artistiko zabala duten musikariez osatua dago. Ospe handiko orkestra ezberdinekin lan egiteaz gain (hala nola, Euskadiko Gazte Orkestra, Euskadiko Orkestra, Espainiako Gazte Orkestra etab.), laukoteko partaideak folk taldeetako kide ere badira (Oskorri, Benito Lertxundi). Bere erreperitorioan Alos Quartet-ek gaur egungo musikaren esparru zabal eta anitza jasotzen du,

Lankidetzen artean nabarmentzekoa da 1999. eta 2004. urteen bitartean Dulce Pontes abeslari portugaldarrarekin batera egindako birak, Estatuko eta Portugalgo areto entzutetsuenetan kontzertuak eskainiz: Madrilgo Kongresu Jauregia, Bartzelonako "Palau de la Musica", Lisboako Coliseo Tetroa etab... 2001 urtetik hona Alos Quartet Kepa Junkera musikariarekin aritu da.



ERAKUSKETA ▶ Gaxuxako Emakumeak

Martxoak 6tik 17ra

ordua: 9:00-14:00 (Astelehenetik-Ostiralera)

KULTUR ARETOA (Donibane kalea,2)

Sarrera
0,00€



Gaxuxa emakume taldearen eskulanen erakusketa

Donibane kaleko kultura aretoan

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K

